

II. MUGAGABEA (3)

- Gogora ezazu noiz erabiltzen diren forma mugagabeak

1. <i>Galdetzailleekin:</i>	Zein etxetan bizi da?
2. <i>Zenbatzailleekin, batzuetan :</i>	Bi dendatan sartu naiz
3. <i>Indefinidoekin :</i>	Edozein lekutara ez da joan behar
4. <i>Esaera batzuetan :</i>	Baketan, eguzkitan, uretan...

II.1. NON, NONDIK, NORA MUGAGABEAN

- Forma :

	bokal	kontsonante	
NON	-TAN	-eTAN	edozein dendatan edozein autobus-e-tan
NORA	-TARA	-eTARA	edozein tokitara edozein bezterr-e-tara
NONDIK	-TATIK	-eTATIK	edozein herritatik edozein zuhaitz-e-tatik

- Ondoko esaerak mugagabeen daude. Maiz erabiltzen direnez, buruz ikastea komeni da :

argitan :	jarri zaitetz argitan	(a la luz)
eguzkitan :	jarri eguzkitan	(al sol)
euritan:	ez ibili euritan	(bajo la lluvia)
elurretan :	pozik dabil elurretan	(en la nieve)
uretan :	arrautza uretan pasatuak	(en agua)
sutan :	eltzea sutan dago	(al fuego)
	gizon hori sutan dago	(enfadado, encendido)
ametsetan :	ametsetan dago	(soñando)
baketan :	ez al duzu baketan utzi behar?	(en paz)
izerditan :	izerditan etorri da	(sudando)
begitan hartu :	begitan hartu du	(ojeriza)
zorretan:	ez utzi zorretan	(en deuda)
benetan :	benetan ari zara?	(en serio)
txantxetan :	ez esan hori txantxetan ere	(en broma)
tokitan :	tokitan dago!	(en buen sitio!)
hizketan/berbetan :	norekin ari zinen hizketan?	(hablando)
kontutan hartu :	hartu kontutan esan dizutena	(en consideración)

Eta berdin: askotan, gutxitan, gehiegitan, bitan, birritan, txikitan, gaztetan...

ARIKETAK

1. Amaitu esaldiak parentesi barruko hitza behar bezala erabiliz :

NON

1. Talgoa ez da gelditzen hiru ... baizik (geltoki)
2. Zein ... erosi duzu arropa hori? (denda)
3. Zer ... iritsiko zarete bihar? (ordu)
4. Utzi jendea ... ! (bake)
5. Ezin da autoa edozein ... utzi (leku)
6. Liga Errealak irabaziko duela uste baduzu, ... zaude (amets)
7. Jarri arropa horiek ... , bestela ez dira lehortuko (eguzki)
8. Ez da komeni ... bat-batean sartzea (ur)
9. Bizpahiru ... izan naiz eta ez didate inon ireki (etxe)
10. Zer ... hasi behar duzu lanean? (egun)
11. Auto batean joan ginen denak, baina ... itzuli ginen (bi)
12. Gaur egun ezin da edozein ... erre (toki)

NORA

13. Zein ... eraman dute nire laguna? (ospitale)
14. Zenbait ... ez da ura iristen (etxe)
15. Zenbat ... bidali duzue jaialdiaren propaganda? (herri)
16. Hamar ... bidali genuen inkesta, baina ... ez omen da iritsi (eskola; bi)
17. Edozein ... joanda ere, ondo moldatzen da hori (leku)
18. Bota ezazu ... txikle zahar hori (zabor)
19. Perretxikoak bi ... prestatuko ditut (era)
20. Etor zaitezte ... , hemen beroago egongo zarete (eguzki)

NONDIK

21. Zein ... bota dute puro-hondar hori? (leiho)
22. Zer ... dator zarata hori? (etxe)
23. Bi ... etorri zaigu albiste bera (leku)
24. Goizeko trenean datorren jendea herri ... dator (asko)
25. Gure herriko bi ... ikusten da itsasoa (tontor)

Testuak lantzen

- 1** Mugagabeko kasu hauek **informazioa eskatzeko** erabiltzen dira maiz. Ikus itzazu ondoko bi adibideak :

A.

GALERIA HANDIETAN

- Barkatu, andereño, zein pisutan dago haurren arropa?
- Hirugarrenean; eskaileretatik irten eta ezkerretara.
- Eskerrik asko... eta kafetegia?
- Kafetegia azken pisuan dago.
- Zer ordutan irekitzen dute?
- Irekia dago dagoeneko.
- Ederki, mila esker.

Dagoeneko: ya

B.

LAGUNAK

- Adizu, bihar Baionara joatekoak gara. Etorri nahi al duzu gurekin?
- Bai..., zenbat autotan zoazte?
- Zortzi lagun gara. Beraz, bi autotan joango garela uste dut.
- Orduan nire Minia eramango dut.
- Ez, ez; lagunek ez dute edozein autotan joan nahi. Auto indartsuak nahi dituzte.
- Ederki..., eta zer tokitan elkartuko gara?
- Betiko tokian, 'Paraiso' kafetegian.

—
→ a. Aurkitu testu horietako forma mugagabeak.



II. MUGAGABEA (4)

II.1. NONGO MUGAGABEAN

- Aurreko ikaskaletan ikusi dugun bezala, mugagabea zenbait galderatan (*zenbat etxe* , baina *nolako etxeak*), indefinidoekin (*edozein etxe*), zenbatzaileekin batzuetan (*bi etxe* , baina *bi etxeak*) eta esaera zenbaitetan (*bitan, eguzkitan...*) erabiltzen da.

Hona **nongo** kasuko adibide batzuk:

Zenbat egunetako lana zor dizut?	(el trabajo de cuántos días)
Bi egunetako lana zor didazu	(el trabajo de dos días)
Egunetako lana da hori	(el trabajo de días)

Eta izena isilpean utzita:

Zenbat egunetakoa zor dizut?	(el de cuántos días)
Bi egunetakoa zor dizut	(el de dos días)
Egunetakoa zor dizut	(el de días)

- Forma:

NONGO

bokal	-(TA)KO	bost ordutako lana bost ordutakoa
kontsonante	-e(TA)KO	bost egunetako lana bost egunetakoa

- Erabilera:

Neurria, adina, pisua eta horrelakoak adierazten direnean, **-ta-** gabe erabiltzen da maiz mugagabea:

Bi metroko soka	-	Bi metrokoa
Hamazazpi urteko gaztea	-	Hamazazpi urtekoa
Bi pisuko etxea	-	Bi pisukoa
Berrehun kiloko harria	-	Berrehun kilokoa
Mila laguneko herria	-	Mila lagunekoa
Hitz gutxiko andrea	-	Hitz gutxikoa

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak parentesi barruko hitza **nongo mugagabe**an erabiliz:

- | | |
|---|-------------|
| 1. Edozein ... jendea hartzen dute lantegi horretan | (adin) |
| 2. Leku ... dena ez da inongoa | (gehiegi) |
| 3. Zenbait ... giroa ez da atseginegia izaten | (etxe) |
| 4. Zein ... zara? | (herri) |
| 5. Zer ... trena hartu behar dugu? | (ordu) |
| 6. Egun ... lanaren soldata zor didate | (asko) |
| 7. Hiru ... administrazioa daukat neure kargu | (denda) |
| 8. Bi ... zuzendari izana da | (irradi) |
| 9. ... kontuak dira horiek! | (toki) |
| 10. Neurri ... arropak dituzte denda horretan | (asko) |
| 11. Hiru ... urak biltzen dira presa horretan | (erreka) |
| 12. Zenbait ... harea zakarregia da | (hondartza) |
| 13. Edozein ... atarian ikusiko dituzu eskaleak | (eliza) |
| 14. Edozein ... arropa jutzen du horrek | (kolore) |
| 15. Hainbat ... jendea etorri da ! | (leku) |

Ondoko esaldietan mugagabeak ez du **-ta-** behar (**bi metroko, hamar urteko...**):

- | | |
|--|-----------|
| 16. Hogei ... neska batekin dabil Koldo | (urte) |
| 17. Lau ... etxeak egingo omen dituzte hemen | (pisu) |
| 18. Ehun metro ... etxea erosi dute | (karratu) |
| 19. Oraingo pelikula denak dira bi ... | (ordu) |
| 20. Bost ... autoa behar dut | (lagun) |

2. Euskaratu:

1. Necesitamos una casa de cuatro habitaciones.
2. Necesitan jóvenes de unos veinticinco años.
3. Aquí hay gente de muchos pueblos.
4. Vistes ropa de cualquier tamaño y color
5. ¿De qué pueblo es tu amigo?
6. Llevo las cuentas de tres tiendas.
7. Estoy leyendo un libro de mil páginas.
8. No es bueno beber agua de cualquier fuente.
9. ¿De qué casa son estas llaves?
10. Prefiere ropa de colores claros.

Testuak lantzen

1 Irakurgaia .

AUTOETAKO TELEFONOAK EZ DIRA FIDAGARRIAK

Autoan telefonoa jarri dutenak kezkatuta omen daude. Hasieran harro-harro zeuden. Izan ere, tresna egokia zirudien telefonoak bospasei milioitako auto dotoretan batetik bestera, bileratik bilerara, ibili behar izaten duten politiko eta enpresari handientzat. Joan-etorri horietako tarte luzeak hobeto aprobetxatzeko modua zuten horrela.

Orain, ordea, ez daude horren lasai... Diotenez, nahiko erraza omen da telefono horietan hitz egiten dena entzutea. Irrati-afizionatuek nahiko garbi entzuten omen dituzte autoetatik egiten diren dei eta hizketa horiek. "Ederki gaude", esaten dute telefono horien jabeek, "Non dago, orduan, intimitate eskubidea?". Irrati-afizionatuek, berriz, pozik dabilta jolas berri horren bitartez mota askotako hizketak eta sekretuak entzuten... Beraz, zer egin behar da? Garbi dago: autoko telefonoa garrantzi handiegirik ez duten deietarako erabili, ez garrantzi handiko deietarako. Negozioak eta horrelakoak bulegoetan egitea hobeto, bada ezpada ere...

H.

→ a. Aurkitu testuan ondoko esaldi hauen antzekoak:

ona ematen zuen
lehen lasaiago zeuden

bidaiako denbora
bukatu da sekretua

→ b. Erantzun:

1. Autoan telefonoa dutenak ez omen daude lasai. Zergatik?
2. Auto txikietan hasi al ziren telefonoak jartzen?
3. Idazlearen ustez, zertarako erabili behar dira autoetako telefonoak?
4. Batzuk kezkatuta daude eta beste batzuk pozik. Zeintzu dira pozik daudenak eta zergatik?
5. Zer motatako hizketak entzuten dituzte irrati-afizionatuek?

→ c. Idazlana: Esan lagun bati, 6 edo 7 lerrotan, zer alde on eta txar dituen autoetako telefonoak; zertaz hitz egin behar den eta zertaz ez telefono horietan.